La educación superior debe reimaginarse. Y es una herramienta tan poderosa e importante que no podemos dejarla en manos de la inercia o de la mera actividad por la actividad. Tampoco podemos esperar que una nueva ley, norma, memoria o agencia la transforme. La educación superior se debe transformar con la participación de toda la comunidad educativa. Para decidir dónde queremos estar dentro de cuatro o cinco años. En esto estamos.

MENDEBERRI 2025

Jon Altuna, Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademikoa



Mundua aldatzen ari da. Erlazionatzeko eta komunikatzeko moduak zeharo aldatu dira. Beste era batera egiten dugu lan eta lanbide berriak sortzen ari dira. Kontsumitzeko ohiturak ez dute zerikusirik orain dela 20 urtekoekin. Aisialdiak, berak, hamaika aukeraberri eskaintzen dizkigu orain. Gizarteak eta gizakiok behar berriak ditugu, eta noski, erronkaz beteriko eszenatokia irekitzen zaigu begiaurrean. Gaurko eta etorkizuneko belaunaldiak indarrez ebatzi beharko dituzten erronkak.

Mondragon Unibertsitatearen marko pedagogikoak aldaketa horiei guztiei erantzun nahi die. 2002n, Mondragon Unibertsitateak Mendeberri proiektua egin zuen. Proiektu horrek UNESCOk (1996, 1999) etorkizuneko ikaskuntzarako proposatutako oinarriak jaso zituen: konpetentzien eta balioen garapena, ikaslearen erabilera eta elearriztasuna. Bere sorreratik, Mendeberri proiektuaren ardatz nagusiak honako hauek izan dira: konpetentziak eta ikasketa-emaitzak eskuratzea eta garatzea, irakasgaietan oinarritutako ereduari jarraitu beharrean; konpetentziak ebaluatzerakoan ikaslearen etengabeko ebaluazio orokorra funtsezko tresnatzat hartzea; antolakuntza akademikoan ikasketak eta lana uztartzeko aukerari sarbidea ematea; ikasketak eta gradu amaierako proiektuak nazioartekotzea; ikaste-irakaste prozesuan metodologia aktiboak erabiltzea; ikasketak hiru hizkuntzatan egitea; eta irakaslearen eta ikaslearen rol-aldaketa.

Mondragon Unibertsitatearen helburua da 2025ean hezkuntza berrikuntzan liderrak izaten jarraitzea. Plan estrategikoan ildo estrategiko bat onartu da eta horren baitan ari da garatzen Mendeberri 2025. Halaber, Plan Estrategikoaren lerro hau gauzatu nahi da datzoen urteetan gure graduetan beharrezko ikusten ditugun aldaketak eta berrikuntzak abian jarritz.

Mondragon Unibertsitateak behar beharrezko ikusidu hezkuntza-sistemaren maila guztietan zenbait motatako aldaketak egitea. Kontuan izan behar da XXI. mendeko unibertsitatean ikasleen mugikortasuna errealitate bat dela. Are gehiago, handituko dela aurreikusten da. Horri erantzuteko, campusak nazioartetatu dira, besteak beste; hau da, gero eta ohikoagoa izango da zenbait herrialdetako unibertsitateak elkarlanean aritzea, eta ikasleak ez ezik programak eta irakasleak ere partekatuko dituzte.

Mondragon Unibertsitatearen helburua da 2025ean hezkuntza berrikuntzan liderrak izaten jarraitzea. Plan estrategikoan ildo estrategiko bat onartu da eta horren baitan ari da garatzen Mendeberri 2025.

Mendeberri 2025 hausnarketa-eta azterketa-prozesuan lan-talde handiak parte hartu du. Unibertsitateko titulazio guztietako koordinatzaile akademikoek, batik bat, lantalde bat osatu zuten. Design Thinking metodologian oinarritutako prozesu baten bidez, Mondragon Unibertsitateko hezkuntza-prozesu berriari eutsiko zioten ardatzak identifikatu zituen

talde eragile horrek. Lan horren ondorioz proposatutako hezkuntza-ereduak etorkizuneko profesionalen heziketan jartzen du arreta, baina baita, horrez gain, norbanakoaren garapenean ere. Eredu berri horretarako, sei ardatz identifikatu ziren, Mondragon Unibertsitateko tituladunek lortu beharreko helburu gisa:

- Munduko herritarra: badaki zein diren bere sustaiaik, baina, aldi berean, munduko herritar sentitzen da. Munduko arazoez kezkatzen da, eta gizarte-erantzukizuneko eta elkarrekiko ikaskuntzarekin lotutako lankidetzazko jarrera du.
- Identitatea eta helburu pertsonalak: ezagutzen du bere burua eta badaki zer aukera dituen hobetzeko. Erronkak jartzen dizkio bere buruari, eta erronka horiek lortzen ahalegintzen da, bere identitatea libreagoa eta independenteagoa izateko.
- Ikastun mailgua: aldaketara eta berrikuntzara irekita dago. Sortzailea da, eta ilusioa eta jarrera erresilientea erakusten ditu, sor daitezkeen testuinguru ziurgabeei aurre egiteko.
- Ikastun aktiboa: bere prozesuko protagonista da. Badaki zein diren bere ikaskuntza-estrategiak, eta jarrera proaktiboa du bizitzan zeharreko ikaskuntzarekiko.
- Komunikatzailea eta komunikazioaren bideratzailea: hizkuntzak, teknologiak eta komunikabideak ezagutzen ditu. Horri esker, hainbat kulturatako pertsonekin komunikatu daiteke, erronka konplexu eta askotarikoak ulertzeko, eta haiei aurre egiteko.
- Pertsona kooperatiboa: komunitate baten kide sentitzen da eta bere printzipioak eta balioak bereganatzen ditu. Norberaren ongizatearen aurretik komunitatearen ongizatea lehenesten du eta gizartearen eraldaketaren aldean egiten du pertsonen justiziaren eta duintasunaren mesedetan.

“La Escuela es un proyecto de transformación social en continua evolución”

Carlos García

Director General de la Escuela Politécnica Superior

1943-2018 ES MUCHO MÁS QUE UN PERÍODO HISTÓRICO. SON 75 AÑOS DE ANDADURA. 35 MIL EGRESADOS Y CIENTOS DE PROFESORES. MUCHOS EMPLEOS CREADOS. MULTITUD DE PROYECTOS DESARROLLADOS. SUDORES, LÁGRIMAS Y MUCHÍSIMAS ALEGRÍAS.

La Escuela Politécnica de Mondragón Unibertsitatea cumple 75 años. Un aniversario que lo celebrará a su estilo: sin sacar mucho ruido pero presente en muchas mentes. Hablamos con Carlos García, director de MGEI, del aniversario de una de las iniciativas formativas más importantes de Euskadi y del Estado.

¿Qué destacarías de la efeméride?
Me quedo con unas palabras de Javier Retegi (ex-director de la Escuela

Politécnica Superior) haciendo referencia a José María Arizmendiarieta. ‘La Escuela es un proyecto de transformación social en continua evolución. En ámbitos de conocimiento y transferencia a la sociedad’. En definitiva, Eskola es, una de las iniciativas formativas más relevantes de Euskadi y del Estado.

Las cifras de estos 75 años así lo acreditan. Desde aquellos primeros años en que la Escuela Profesional formaba una veintena de alumnos por curso, la Escuela Politécnica Superior ha evolucionado constantemente adaptándose a los cambios y las necesidades de la sociedad. En estos 75 años se han formado más de 35.000 técnicos, ingenieros y tecnólogos y el impacto en las empresas y en la sociedad en general es evidente.

Hablamos, sin duda, de una experiencia formativa diferente y de un proyecto sobre todo cooperativo.

Sin duda, en 1943 con la Escuela Politécnica Superior nació el germen cooperativo. Un proyecto que ha sabido adaptarse a los nuevos tiempos sin variar un ápice la visión del mismo. La de ser generoso en la creación de riqueza en el entorno. Todos los que componemos esta gran familia podemos estar muy satisfechos.

Y “siempre en periodo constituyente”... Así es. Cuando parece que has puesto en marcha algo y puedes descansar, no debes hacerlo... debes seguir creando y poniendo en marcha otros proyectos. Es éste el sino de la Escuela. Hay muchísimas entidades educativas del origen de nuestro centro pero que haya generado tanta riqueza no creo que haya muchas. Nosotros hemos sabido evolucionar y lo hemos hecho de manera espectacular.

¿Cómo se está viviendo desde dentro el 75 aniversario? Estamos arrancando y por suerte no solo nosotros conmemoraremos el aniversario. Otras entidades como Los Amigos de Don José María Arizmendiarieta han organizado un evento y lo han alineado con el 75 aniversario. Lo cierto es que el aniversario trasciende al ámbito universitario. Es un evento de todos. No es exclusivamente nuestro.

“

En estos 75 años se han formado en la Escuela Politécnica Superior más de 35.000 técnicos, ingenieros y tecnólogos y el impacto en las empresas y en la sociedad en general es evidente”.

“

“La entrega de diplomas de mayo también será especial, ya que nos reuniremos todos los diplomados de las quince titulaciones entre grados y másteres. Será en el Kursaal con la participación del Lehendakari”.

¿Cuáles son los actos previstos? Por un lado estamos elaborando editando varios productos: un libro, varios vídeos... con el objetivo de recoger los testimonios de las personas que han sido clave en esta larga y fructífera trayectoria. Por otro lado, a partir de ahora (marzo) realizaremos un acto mensual, aunque alguno de ellos será interno. Queremos trabajar los valores cooperativos por medio de actividades lúdicas. La entrega de diplomas de mayo también será especial, ya que nos reuniremos todos los diplomados de las quince titulaciones entre grados y másteres. Vendrá el Lehendakari y también nuestros aliados; amigos, empresas cercanas, centros tecnológicos, ikastolas... Reuniremos a todos en el Kursaal.

Y además... Habrá una jornada de puertas abiertas para trabajadores, alumnos, familiares... en mayo. En



atractivo, abierto a la sociedad, que nos sirva de reflexión. Será en octubre en el Amaia Antzokia, con música y baile. Aprovecharemos también el acto académico de Biteri Ikastetxea y en diciembre aprovecharemos el Euskararen eguna y el Euskaldia para dar por concluido el año de celebraciones.

En la parte documental queremos recuperar fotografías antiguas y con algunas de esas fotografías realizar una exposición itinerante en los campus de la Escuela Politécnica Superior.

¿Cómo te gustaría que se implicara la gente? A mi me gustaría que la participación fuera enorme. Espontánea. Dinámica. Me gustaría que hubiese sorpresas y estamos abiertos a sorpresas. Todos los que quieran celebrarlo con nosotros, estamos deseando recibirlos.

“

“En 1943 con Escuela Politécnica Superior nació el germen cooperativo. Un proyecto que ha sabido adaptarse a los nuevos tiempos sin variar un ápice la visión del mismo”.

Latinoamerika gurean

LATINOAMERIKAKO ZORTZI HERRIALDETATIK ETORRITAKO 16 LAGUNEK EGIN DUTE EKONOMIA SOLIDARIOA IKASTAROA. HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEK FAKULTATEKO LANKI KOOPERATIBAGINTZA IKERTEGIAK ETA ALBOAN FUNDazioak ANTOLATU DUTE IKASTAROA.



Ikastaroko parte-hartzaileak eta antolatzaileak.

Humanitate eta Hezkuntza zientzien Fakultatea | Amaitu da, dagoeneko, Aretxabaletako campusean, Ekonomia Solidarioan Garapenerako Kudeaketa Ekonomiko eta sozialean Espezializazio Diploma. Oraingo edizioan, Latinoamerikako zortzi herrialdetatik etorritako 16 lagunek egin dute ikastaroa. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Lanki Kooperatibagintza Ikertegiak eta Alboan Fundazioak antolatuta.

Ikastaroaren helburu nagusia izan da eskaintzea baliabideak Latinoamerikako ekonomia sozial solidarioan aritu diren erakundeei euren ekimenak sendotu eta bidegarri egin ahal dezaten. Izan ere, ikastaro honen bidez, kudeaketa ekonomikoa eta soziala zein genero-ekitatearen arloan, hainbat konpe-

tentzia garatu dituzte Bolivia, Kolonbia, Peru, Ekuador, El Salvador, Mexiko, Paraguai eta Nikaragutik etorritako parte-hartzaileak.

Latinoamerikako zortzi herrialdetatik (Boliviatik, Kolonbiatik, Ekuadorretik, Perutik, El Salvadorretik, Mexikotik, Paraguaitik eta Nikaragutik) etorritako 16 ikaslek egin dute ikastaroa Aretxabaletako campuseko ikasgeletan, martxoaren 23ra arte. Ondoren, ikastaroan ikasitakoa beren herrialdeetan jarriko dute praktikan. Horiek batik bat elkartean

16 lagunek egin dute Ekonomia Solidarioan Garapenerako Kudeaketa Ekonomiko eta Soziala ikastaroa.

ta indigenekin proiektu solidarioetan lan egiten dute.

Ikastaroan parte hartuko duten ikasleek lan-esperientzia eta proiektu desberdinak sustatuko dituzte. Batzuk bakarrik aipatzearen: ezti-ekoizpena Bolivian, cuye izeneko sagu-motaren hazkuntza Perun, baserritarrekin lan egiten duen kafe-ekoizleengizarte-enpresabat Kolonbian, nagusiki emakumeekin eta errefuxiatuekin lan egiten duen zapata-lantegia Ekuadorren, indigenekin lan egiten duen artisau-xaboienekoizpena Mexikon...

Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak diruz lagundu du ikastaro hau; gainera, proiektuaren laguntzaileak dira Aretxabaletako Udala, Mundukide Fundazioa eta Arizmendiarietaren Lagunak Elkarteak.

Lankidetzak hitzarmena sinatu da

EDERTEK, MAPSA ETA ECENARROREKIN LANKIDETZA HITZARMENA SINATU DA. GOI ESKOLA POLITEKNIKOAREKIN SINATU DUTEN HITZARMENAREN BITARTEZ, IKERKETA PROGRAMA BULTZATUKO DA ETA EZAGUTZAK TRUKATUKO DIRA.



Carlos García eta Eduardo Fernández hitzarmena sinatu dute

Goi Eskola Politeknikoa | Hitzarmenaren baitan, ikerketa bultzatuko da eremu desberdinetan: mekanizazioa, galdaketa, estanzioa, konposizioa eta 4.0 industriako teknologiek zerikusia duten produktua. Mondragon Unibertsitatearen lankidetzazko ikerketa, transferentzia eta prestakuntza ereduari jarraituta, ikerketa talde bat eratuko da, erakunde bietako ikerketaile eta teknikariek, ikerketa bikaintasunez garatzeko, ondoren, EDERTEKeko bazkide-erabiltzaileei transferitzeko. Hitz batean, proiektu honekin EDERTEKek eta bere zerbitzuen erabiltzaileak diren enpresek lehiarako duten posizioa hobetuko da.

Hitzarmen horri esker, prestakuntza jarduerak espezifikoko ere egingo dira: gradu amaierako eta master amaierako lanak eta baita doktoretza tesien programak.

Premio del Congreso Gastromasa de Estambul

Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas | Basque Culinary Center recibe el Premio del Congreso Gastromasa de Estambul por su desarrollo del potencial económico y social de la gastronomía

El galardón fue recogido por Joxe Mari Aizaga, director de Basque Culinary Center y reconoce entre otras iniciativas, la puesta en marcha de Basque Culinary World Prize, un premio que distingue a chefs con iniciativas transformadoras que demuestren cómo la gastronomía puede ser un motor de cambio.

Esta es la III Edición del Congreso Gastromasa. Se trata de una conferencia internacional y entre los participantes destacaron Joan Roca, Virgilio Martínez, Mauro Colagreco, Diego Guerrero.

KoopFabrika berriro abian

Humanitate eta Hezkuntza zientzien Fakultatea | Mondragon Unibertsitateko LANKI Koopertibagintza Ikertegiak eta Olatukoop sareak bultzatuta, abian jarri dute KoopFabrikaren bigarren edizioa Eskoriatzako campusean. Aurten, 50 lagunek eman dute izena ikastaroan.

Bi zati ditu ekintzaileak sozial kooperatiboa eta ekonomia soziala sustatzea helburu dituen KoopFabrikaren bigarren edizioak: Formazio Fabrika eta Tutoretza Fabrika. Lehenengo faseak iraungo du Aste Santura arte, eta eskolak emango dira Eskoriatzako campusean eta Hernanin. Tutoretza Fabrika, osterak, ekainera arte luzatuko da.

KoopFabrika lankidetzan sortuta dago hurrengo erakundeen batera: Olatukoop sarea, Bagara, EHUko GEZKI Gizarte Ekonomia Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua eta Debagoi-enako Garapen Agentzia, Beterri-Buruntzako Udalak eta Oarsoaldegarapen agentzia. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa ingurune eta Lurralde Oreako Departamentuak babestu eta finantzatu.



KoopFabrikako parte-hartzaileak hasiera ekitaldian.

Mondragon Unibertsitatea eta ITP-AEROk hitzarmena berri dute

Goi Eskola Politeknikoa | ITP-AERO eta Goi Eskola Politeknikoa aurrerapauso berria eman dute eta orain dela hamabost urte baino gehiago duten kolaborazio hitzarmena berretsi dute.

Hitzarmenaren baitan fabrikazio alorreko entsegu eta frogak desberdinak egingo dira Eskola Politeknikoaren instalazioetan. Horrela, produkzio prozesuetan gerta litezkeen arriskuak ekidin eta hobekuntzak ezartzea da eronka.

Merkatuari erreparatuta eta sektore aeroespazialak duen indarra kontuan hartuta, ITP enpresak sektorean duen lidergoa mantentzeko ahalmena berri dute du hitzarmenari esker.

Halaber, Eskola Politeknikoan formatuko dira arlo honetan etorkizunean lana egingo dute teknikari eta ikerlariak. Horretarako, instalazio berezituak egokitu dira, laborategietan produkzio prozesuak frogatzeko eta fabrikazioa hasi aurretik, beharrezkoak diren inpakto eta eraginak neurtzeko.

Testuinguru honetan, proiektu berritzaile eta estrategikoak martxan jartzeko pausuak mantendu eta indartuko dira, Europa mailako proiektuen bitartez, besteak beste.

Azken urte hauetan bezala, ikerketan sakontzeko helburuarekin, seminario, jardunaldi eta kurso bereziak antolatuko dira, eta doktore tesietan ere elkarlanean arituko dira.

25º ANIVERSARIO DE TEAM ACADEMY FINLAND

LOS DÍAS 19 Y 20 DE ENERO DE 2018 SE HA CELEBRADO EN JYVÄSKYLÄ EL 25 ANIVERSARIO DE TEAM ACADEMY FINLAND. UN EQUIPO DE 13 PERSONAS DE LA COMUNIDAD DE MONDRAGON TEAM ACADEMY HAN PARTICIPADO EN LOS EVENTOS PROGRAMADOS.



El equipo de Finland Team Academy, en el 25º aniversario.

Facultad de Empresariales | Todos los laboratorios de MTA han tenido presente esta fecha y han participado activamente en la celebración. En el seminario celebrado el 20 de enero, donde se juntaron más de 200 personas, con una alta representación internacional (Reino Unido, Alemania, Francia, Suiza, Canadá, entre otros). José Mari Luzarraga y Aitor Lizartza realizaron una presentación en formato Pecha Kucha junto con Tiimiakatemia Jyväskylä y Proakatemia, como experiencia más relevante de la red a nivel internacional.

Además ambos recibieron el reconocimiento como personas referentes por su labor en la red en los últimos 10 años. Asimismo, en la tarde-noche del 20 de enero se celebró la fiesta de gala del 25 aniversario donde en un formato más distendido se acercaron más de 300 personas. 2018 es un año muy especial para Mondragon Team Academy ya que se celebran 10 años desde su inicio. Por lo tanto habrá una programación especial.



GEPEko eta ITP-AERO enpresako ordezkariak sinaduran.

Gastronomia Jasangarriaren VI. Jardunaldia



Erreferente diren kasu desberdinak aurkeztu ziren.

Basque Culinary Center - Gastronomia Zientzien Fakultatea | Basque Culinary Centerrek Gastronomia Jasangarriaren VI. jardunaldia ospatu zuen. Jardunaldiaren helburua gastronomia eta sukaldaritzaren sektoreak suspertu eta hauen prozesuetan jasangarritasun irizpideak gehitzea izan zen. Honen bitartez etorkizuneko chef-ei sukaldaritzaren jasangarriaren gizarte, ingurugiro eta ekonomia onurak aurkeztu nahi izan zitzaizkien.

Jardunaldi hau sukaldaritzako profesionalei zein Basque Culinary Centerreko irakasle eta ikasleei zuzendua izan zen, Basque Culinary Centerrek bultzatutako formazio jasangarriaren markoan, erreferente gisa arrakasta kasuak aurkeztuz:

Karabeleko jatetxe-ko Iker Goikoetxea eta BCulinaryLABeko Blanca del Novalen Mihi Berdea aurkeztu zuten, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako kooperazio proiektu bat, adimen osasun arazoak dituzten pertsonen lan mundurako sarrera aukerak eskaintzeko asmoa duena.

World Wildlife Fundeko Celia Álvarez

Doncelek arrantza jasangarriaren gakoak azaldu zituen, hauek sukaldaritzaren sektorerara aplikatuz arrain eta itsaskien iturri jasangarriak eskuratzeko moduak azalduz.

Diego Prado chefak, BCulinaryLABeko koordinatzaileak Basque Culinary Center bertako ikasleek sortutako hondakinen errebalorizaziotik abiatuz balio gastronomikoko produktu gama berri baten sorreraz egin duen lana aurkeztu zuen.

Michelin izar bat duen Árbore da Veira jatetxeko Luis Veira chefak Down Food aurkeztu zuen, Down syndrome duten pertsonen formazioa eta lan mundurako integrazio-rako programa. Arrakasta kasu honek goi gastronomiak bere inguruneari

gizarte balioa gehitu diezaiokela argi uzten du.

Gastronomia Jasangarriaren VI. jardunaldia Douglas McMasterrek itxi zuen Brightoneko Silo jatetxearen fundatzaileak, Ingalaterrako historiakolehen Zero Hondakin jatetxearen historia elkarbanatuz, gustu oneko eta gutxieneko ingurumen inpaktua dituzten bertako elikagaiak eskaintzeko pentsatua dagoena.


Honen bitartez etorkizuneko chef-ei sukaldaritzaren jasangarriaren gizarte, ingurugiro eta ekonomia onurak aurkeztu nahi izan zaizkie.

Cumbre juvenil del banco mundial

Enpresagintza Fakultatea | Mondragon Team Academy (MTA World) ha parteicipado en la quinta Cumbre Juvenil del Banco Mundial (World Bank Youth Summit). Desde 2013, los trabajadores más jóvenes del Banco Mundial lideran este encuentro internacional que tiene el propósito de crear un espacio de debate y aprendizaje, donde se intercambian ideas orientadas a la erradicación de la pobreza en el mundo. Todo ello permite acercar la labor de dicha organización a este segmento de población y construir oportunidades para ellos. Cada cumbre aborda un tema diferente. El encuentro de este año se ha centrado en la tecnología e innovación para un impacto social positivo, es decir, se tratará de analizar cómo las nuevas tecnologías y la innovación pueden contribuir a construir un mundo mejor o hacerlo socialmente más 'habitable' para todos. Entre otros, José María Luzarraga (co-fundador de Mondragon Team Academy) participó junto a un grupo de líderes internacionales y directivos del Banco Mundial en el debate titulado “¿cómo despertar el potencial emprendedor inherente en los jóvenes alrededor del mundo?”

Revista nanoscale

La prestigiosa revista recoge el artículo en el que han participado investigadores de la Escuela Politécnica Superior.



Escuela Politécnica Superior | La prestigiosa revista de la Royal Society of Chemistry recoge el artículo en el que han participado investigadores de la Escuela Politécnica Superior.

Ireneo Torca de la Concepción y Jon Ander Esnaola Ramos, investigadores del grupo de Diseño y Mecánica Estructural de la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea, han publicado recientemente un artículo científico en la prestigiosa revista Nanoscale, de índice de impacto 7.367, de la Royal Society of Chemistry.

El trabajo titulado “Membrane-containing virus particle exhibits mechanics of a composite material for genome protection” parte de la base

de la protección del genoma vírico durante el transporte extracelular como un requerimiento indispensable para la supervivencia y replicación del propio virus.

Este trabajo ha sido liderado por el investigador de ikerbasque Nicola G A Abrescia, perteneciente al Structural Virology Lab del CIC bioGUNE, y en él han participado investigadores de diferentes grupos de investigación nacionales e internacionales de reconocido prestigio, como, por ejemplo, el CIC biomaGUNE, la UPV/EHU, el Donostia International Physics Center, la Universidad de Helsinki (Finlandia), la Universidad de Leeds (Gran Bretaña) y Mondragon Unibertsitatea.

Hemper gana la final nacional del “Global Student Entrepreneur Awards” 2018

LA MARCA DE MOCHILAS SOSTENIBLES HEMPER, CREADA POR JÓVENES EMPRENDEDORES DE TEAMLABS, HA GANADO LA EDICIÓN ESPAÑOLA DEL GLOBAL STUDENT ENTREPRENEUR AWARDS (GSEA), LA MAYOR COMPETICIÓN MUNDIAL DE EMPRENDEDORES UNIVERSITARIOS, ORGANIZADA POR ENTREPRENEUR'S ORGANIZATION (EO).



Las mochilas están hechas a mano, en Nepal y con telas ecológicas.

Facultad de Empresariales | Hemper, que representará a España en la final global de GSEA en Toronto (Canadá) en abril, es una startup creada por Gloria Gubianas, Carlos Sandoval y Manu Sierra, emprendedores del grado universitario LEINN (Liderazgo, Emprendimiento e Innovación) que imparte Teamlabs junto a la unidad de emprendimiento Mondragon Team Academy, con tres amigos enamorados también de Nepal: Gonzalo Martín, Alejandro Pastrana, y María Álvarez, que ha representado a Hemper en este concurso.

Su misión consiste en demostrar que se puede crear una marca de moda sin dañar el medio ambiente y respetando los derechos humanos. Sus mochilas y complementos están hechos a mano en Nepal con cáñamo, una de las telas más ecológicas de la industria textil, y empoderan familias y comunidades en riesgo de exclusión social mediante la creación de empleo.

Los 3 proyectos ganadores han recibido como premios mentoring, servicios y formación de desarrollo de negocio y espacio de trabajo. Además, el ganador ha recibido 1.000 euros en metálico y todos los gastos de viaje y estancia pagados para representar a España en la final de Toronto. Los premios de la final global para los tres ganadores incluirán premios en metálico de 20.000, 10.000 y 5.000 dólares y más de 30.000 en otro tipo de servicios.

Los otros tres finalistas en la edición nacional han sido Paraná Skateboards (Teamlabs, también de Mondragon Unibertsitatea), GameSquare Factory (Universidad Pompeu Fabra) y Yosai (Teamlabs, Mondragon Unibertsitatea).

Ikastolen Elkartekoak komunikazio korporatiboaz trebatzen

IKASTOLEN ELKARTEKO 16 ORDEZKARIK KOMUNIKAZIOAREN GAI NEKO PRESTAKUNTZA JASO DUTE MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ARETXABALE-TAKO CAMPUSEAN.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Bi dira Euskal Herri osoko ikastoletatik etorritako komunikazio arduradunek jasotzen duten prestakuntza-aren helburuak: egungo gizartearen eta erakundearen komunikazioak duen garrantziaz ohartaraztea eta, hasieratik amaierara, komunikazio plan bat diseinatzen ikastea.

Prestakuntza oso era praktikoa antolatuta egon da, eta bertan uztartu dituzte hitzaldiak, aurkezpenak eta banakako tutoretzak. Izan ere, ikastaroaren ardatza izan da ikastoletako arduradunek egin beharreko lan praktikoa. Saiotz saioa, ikasleak joan dira osatzen matrikulazio kanpainaren eragiteko komunikazio plana. Oro har, bai ikastoletako ordezkariak zein ikastaroaren antolatzaileak oso gustura agertu dira emaitzarekin.

Ikastaroa hasi zen 2017ko urrian eta, guztira, arratsalde osoko bost saio egin zituzten. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatuta-ko ikastaroan, AZK komunikazio taldeak ere parte hartu du.



Ikastolen elkarteko taldea komunikazioaren gaineko prestakuntza saioan.

Unibertsitatearen erakusleihorik egokiena

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK WEBGUNE BERRIA ESTREINATU DU; MODERNOAGOA, INTUITIBOAGOA, IKUSGARRIAGOA, BERRITZAILEAGOA, ERAGINKORRAGOA ETA BEREZIKI AURRERATUAGOA. HELBURUA DA UNIBERTSITATEAK BERE BEZEROEKIN DUEN HARREMANA (IKASLEAK, ENPRESAK, PROFESIONALAK, ADMINISTRAZIOA...) HOBETZEA, GERO ETA MERKATU ZORROTZAGOAN.



Mondragon Unibertsitateko errektoradutzako eta fakultate ezberdinetako zein beste arlo batzuetako ordezkariak webgune berriaren prozesuan parte hartu dute.

Mondragon Unibertsitatea | Barrura begira edukien kudeaketa samurtu nahi izan bada ere, webgune berriaren helburu nagusia unibertsitatearen kanpo komunikazioa hobetzea izan da. Posizionamendura bideratutako plataforma da, bilatzaileetan ondo kokatuta dagoena eta nabigazio erraza eskaintzen duena. Hain justu ere, bi nabigazio mota eskaintzen ditu, bat oro-korra eta beste espezifikoagoa, bilatzailearen profilerak egokitutakoa.

Askotariko publikoa

Mondragon Unibertsitatearen webguneak publiko objektibo anitza dauka. Batetik daude Graduak, Masterretako eta nazioarteko eskaintzakako ikasle berriak, bestetik daude unibertsita-

tean urteak daramatzaten ikasleak, enpresak eta bestelako profesionalak. Horientzat guztientzat erakusleio ezin hobea bilakatu da webgune berria. Gainera, liburutegiak, bizitza unibertsitariokak, ikerketak... badituzte beraien espazio berezia plataforman.

Edonork Mondragon Unibertsitatearen inguruan behar-beharrezkoa duen informazioa jasotzeko ezinbesteko erakusleioa bilakatu da, non titulazio bakoitzaren informazio guztia jasotzen den, katalogoak, bideoak, fakultate bakoitzaren informazioa, aktibitateak, zerbitzu konkrituak, kirol arloa... dena era oso dinamikoan azalduta aurkituko du internautak. Azken finean, Mondragon Unibertsitatearen eremu guztiak eta pertsona guztiak daude ordezkaturik webgune berrian.



Una web muy visual

Las tendencias de consumo de contenidos en Internet no dejan lugar a dudas. Hoy, a diferencia de ayer los audiovisuales ganan terreno a otro tipo de contenidos. Tanto es así, que el 87% de las marcas usan vídeos en sus estrategias de marketing. Por medio de pequeños vídeos de todo tipo de estilos y formatos promocionan sus productos y dan notoriedad a su marca. La nueva web de Mondragon Unibertsitatea responde a esta tendencia y el vídeo se erige como uno de los principales protagonistas de la web, con multitud de piezas audiovisuales de todo tipo. Vídeos inspiradores, testimoniales, basados en estrategias de employer branding... Si aún no has visitado la web de Mondragon Unibertsitatea, acércate a www.mondragon.edu

22% OTROS

44% GALERÍAS DE IMAGEN

44% ARTÍCULOS

66% BLOGS

> 87% VIDEO

87% de los responsables de marketing usan vídeos para el marketing de contenidos

HIESA duten emakume indiarren alde

LIDERGOA, EKINTZAILATZA ETA BERRIKUNTZA IKASKETETAKO BOST IKASLEREN PROIEKTUA DA. ABENDUAREN 1EAN HIESAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNEAN JARRI ZUTEN MARTXAN

Enpresagintza Fakultatea | Sara

Anton, Nagore Osa, Ainhua Peña, Ene-ritz Arizmendiarrrieta eta Anne Campo 'Vidas en positivo' taldeko kide dira eta egitasmoaren sustatzaile nagusiak. Bostak dira LEINN graduak ikasleaketa urtariletik apirila bitartean Txinan eta Indian izango dira hainbat proiektu garatzen. "Beste herrialde batean eta beste errealitate batean ekintzaileak izateko ikastera goaz. India nahiko herrialde konplexua da; hazten ari da, baina oraindik arazo sozial asko dituen herrialdea da", azaldu dute. Donostiako Calcuta Ondoan gobernu kanpoko erakundearekin jarri dira harremanetan 'Vidas en positivo' proiektua garatzeko. Bombaytik gertu dagoen herri bateko komunitate batean, Hiesa duten emakume talde bat dago, eta hainbat proiektu garatzen dituzte han. "Elkartearen helburua da, batez ere, emakume horiei ahalduntzean laguntzea", adierazi dute proiektuaren sustatzaileek.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017-2018 urtean proiektu hori lagundu du, baina epe luzean garatzen laguntzeko ez dago diru poltsarik. "Beraz, gure helburua da diru poltsa hori lortzea, eta horretarako finantzaketa kolektiboa abiatzea pentsatu dugu", azaldu dute.

Kontzientziazioa

Iragan abenduaren 1ean dirua lortzeko kanpaina jarri zuten abian, egun horretan bi bideo plazaratu zituzten. Lehenengoan, Indiako emakumeek bizi duten egoera islatzen da, hiru faktore oinarri hartuta: pobrezia, prebentzio falta eta emakumea izate hutsa. Bigarrenean, berriz, proiektuaren nondik norakoak azaltzen dira. Guztira, 100.000 eurotan jarri dute proiektua garatzeko gehienezko diru kantitatea, eta bertan parte hartzen duenak hainbat sari lortzeko aukera izango du.

Alde batetik, GKEak egindako Indiako poemekin eta argazkiekin jositako liburu bat, eta bestetik, hiru formatutako kotoiz eta haziz egindako opari moduko paperak. Gainera, Hiesaren Aurkako Nazioarteko Egunean, Donostian, Bilbon eta Gasteizen zenbait ekintza egin zituzten. Horietako bat gailera edo bonboi itxura duen pakete bat banatzea izan zen. "Zabaltzean, aukeratu! jarriko du. Alde batean kondoi bat egongo da, eta beste aldean gaixotasunak dakarren ondorio bat. Gure kasuan, aukeratu hori dagoela oihartzeko balioko du. Emakume indiarren kasuan, ez dute aukerarik".



Elkartearen helburua Hiesa duten emakume taldea ahalduntzean laguntzea da.

'EDIT Video Challenge' Europako lehiaketan irabazle

ANE NAFARRATE, JONE SERRADOR, AITZIBER GIMENEZ DE ABERASTURI ETA XABIER MARTIN IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA GRADUKO BIGARREN MAILAKO IKASLEEK OSATUTAKO TALDEAK IRABAZI DU EDIT 2017 VIDEO CHALLENGE LEHIKETAKO BIGARREN SARIA.



Ezkerretik eskubira: Xabier Martin, Ane Nafarrate, Aitziber Gimenez de Aberasturi eta Jone Serrador.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea |

Fakultateko ikasleek aurkeztutako bideo guztietatik lauk lortu dute lehiaketako 13 bideo onenen zerrendan egotea. Fakultateko Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduetako ikasleek hartzen dute parte hezkuntzari buruzko nazioarteko bideo rally honetan. Oraingo edizioan, guztira, 79 lan aurkeztu dira.

Mondragon Unibertsitateko lau-kote irabazleak *Run* izeneko bideoa aurkeztu zuen lehiaketara. Saritutako ikus-entzunezko hori da metafora bisual bat. Egileen hitzetan, "islatsu nahi izan dugu gizarteak inposatzen dituen balioen normatiboen aurrean, protagonistak hartzen duen jarrera eta libre izateko duen gogoia etakemena".

Ikasle irabazlearen esanetan, "bideoan garrantzi handia dute mezuek eta musikak". Lehiaketak eskatzen duen moduan, egileek oso azkar pentsatu, grabatu eta editatu behar izan zuten bideoa, baina, oso pozik daude emaitzarekin, irudi erakargarriak eta mezu indartsuak biltzea lortu dituztelako.

Lehiaketan aurkeztutako bideoak izan behar dira hezkuntzari buruzkoa eta bi eta lau minutuko iraupen tartekoak; baina, ikasleek ez dute jakiten jorratu beharreko gai zehatza lehiaketaren bezperara arte. Izan ere, lehiaketaren xedea da bideoak epe labur batean egitea, rally era. Horregatik, eta aurkezten diren bideoak lehiaketa honetarako propioa eginda daudela ziurtatzeko, antolatzaileek eman zituzten, gaierekin batera, ingelesezko hiru hitz gako derrigorrez sartu beharrekoak bideoetan: *ring*, *light* eta *tie*.

Irabazleak erabakitzerako orduan, antolatzaileek zaindu zituzten hiru arlo nagusiki: lanak dituen hezkuntza balioak, kalitate teknikoa eta balio artistikoa.

Mondragon Unibertsitateko ikasleekin batera, EDIT Educational Video Challenge egitasmoan parte hartzen dute Finlandia, Austria, Rumania, Suitza, Grezia, Alemania eta Eskoziako unibertsitate ikasleek.

Unibertsitateko webgunean daude lehiaketara aurkeztutako bideoen bilduma.

Zer egingo duzu zure osasunaren alde?

APIRILAREN HASIERAN, JARDUERA FISIKOAREN ETA OSASUNAREN MUNDU MAILAKO EGUNAK OSPATUKO DIRA, HORI DELA ETA, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO KIROL ZERBITZUAK BAT EGINGO DU EGUN HAUEKIN. UNIBERTSITATEKO IKASLE ETA LANGILEENGAN OSASUN OHITURA OSASUNTUAK SUSTATZEKO ASMOAREKIN, EKIMEN EZBERDINAK ANTOLATUKO DIRA



Mondragon Unibertsitatea | Apirilaren 6an, mundu mailako jarduera fisikoaren eguna ospatu da, eta apirilaren 7an, berriz, osasunaren mundu mailako eguna. Osasunaren Munduko Erakundearen (OME edo OMS) sorrera ospatzearen aitzakian, urtez urte hainbat aldarrikapen egiten dira.

Aurten, “Osasun estaldura unibertsalarekin, osasunaguztontzat” lemapean (www.who.int/campaigns/world-health-day/2018/es/), OMEk munduko potentzia nagusienei, pertsona guztiengan osasuna sustatzeko neurri zehatzak hartzea eskatzen die.

Osasun estaldura unibertsala, giza pertsona guztiak behar dituzten oinarriko eta kalitatezko osasun zerbitzuak bermatuak izatealitzateke, horiek ordaintzeko arazo ekonomikorik izan gabe. Gure herrialdean behar hau bermatua dagoen arren, munduko beste zonalde batzuetan oraindik ere lan handia dago egiteko.

Osasunarekin lotuta, esan genezake jarduera fisikoak berebiziko garrantzia duela gizabanakoaren osasunean eta ondorioz, osasuna eta jarduera fisikoa zuzenki erlazionatuta dauden kontzeptuak direla.

Arestian aipaturiko 2 egun hauekin bat egin nahian, Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak apirilaren 2. astean ekimen ezberdinak bultzatu ditu:

- **Gosari osasuntsuak.** Gosaria, ezinbestekoa da goizeko lan-jardunari indarrez ekiteko (eguneko jatordu garrantzitsuenatzat ere jotzen da). Askotan, gosaria da ardura gutxien eskaintzen zaion otordua baina ohitura eta heziketa mota hauek gizartetik

ezabatu behar dira, gosariak, beste otorduekin batera, bere garrantzia duelako. Otordu honi daukan garrantzia aitortzeko asmoarekin, Mondragon Unibertsitateko fakultate eta campus guztietan gosari osasuntsuak eskaini dira.

- **Informazio mezuak** (kontzientzia lantzeko). Jarduera fisikoaren lotutako hainbat mezu bidali dira, honek dituen onurak azpimarratuz eta bizi estilo aktiboak sustatuz.

- **Azterketa medikuak.** Jarduera fisikoa modu osasuntsuan burutzen hasi edo burutzen jarraitzeko, ezinbestekoa da gure gorputzaren osasun egoera ezagutzea. Horretarako gomendagarria da, profesionalengana jotzea azterketa mediku bat egin eta bertan jasotako emaitzen arabera, jarduera fisikoa norberaren ezaugarrietara egokitzea.

- **Jarduera fisikoaren sustapena.** Udaberrira begira, Kirol Zerbitzuak eskaintzen duen programaren bidez edo jarduera berrien ezagupena bultzatuz. Azken hiruhilabeteari begira, Kirol Zerbitzutik hainbat ekintza proposatuko dira, eguraldi hobea aprobetxatuz, ekintza hauetarik asko kostaldean edo ur ingurunearekin lotura izango dutelarik.

Kirol zerbitzuaren helburua, azken ikasturte eta koldo berean jarraituz, unibertsitateko ikasleriaren eta langilegoaren osasuna hobetzen laguntzea da, eta horretarako, OME-n eskaerari jarraituz, unibertsitatean jarduera fisikoaren praktika eta bizi ohitura osasuntsuak sustatzen jarraituko dugu. Hortaz, adi egon Kirol Zerbitzuaren webguneari, bertan izango dituzue udaberrir alderako ekintzen berri eta.

Beca de Excelencia Avenir para Aurea Iñurritegi



Aurea Iñurritegi con beca de excelencia Avenir

Goi Eskola Politeknikoa | En esta 3ª edición del programa se han ofertado un total de 77 becas, el doble que en 2016/17 y cuatro veces más que en la primera convocatoria del año 2015/16.

Aurea Iñurritegi, alumna del Máster en Ingeniería Industrial de Mondragon Unibertsitatea, ha obtenido una beca de excelencia Avenir. Estas becas de excelencia, impulsadas por la Embajada de Francia y el Institut Français, en colaboración con la Asociación de Amistad Hispano-Francesa Diálogo, están dirigidas a estudiantes españoles o con doble nacionalidad española-francesa y tienen como objetivo facilitar estancias en Francia para estudiar en una universidad o “Grande École” o realizar prácticas en empresas.

Iñurritegi, que está cursando el programa Doble Diploma (Doble titulación en Francia) de la Ecole Central de Nantes, ha obtenido una de las dos becas que ofertaba la multinacional Alstom y, gracias a la misma, ha podido realizar su proyecto fin de máster en esta multinacional francesa que diseña, desarrolla y suministra sistemas, equipos y servicios para el sector del transporte.

Este año se han ofertado un total de 77 becas, el doble que el curso académico pasado y cuatro veces más que en la primera edición, algo que no ha pasado desapercibido para los organizadores de la misma, que ven como el interés se multiplica año tras año.

Jardunaldiak & ekintzak

Literatur topaketa

Maitzak 16
Literatur topaketa.
Eskoriatzeko Zaldibar Aretoan.

Txomin Txapel

Maitzak 17
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko jaia.
Eskoriatzako campusa.

Euspot. Sari banaketa-

Maitzak 24
Euspot euskarazko spot lehiaketaren sari banaketa.
Aretxabaleta.
Arkupe kultur-etxea. 19:00.

Jardunaldia

Maitzak 25
Isiltasunaren bidean: Gizakiaren garapen integralaren klabeen inguruko ikerketak jardunaldia.
Eskoriatzako campusa.

Kooperatibagintza aditu titulua

Ekainak 7
Kooperatibagintza aditu tituluaren 10. urteurren jaia.
Eskoriatza. 18:00

Ikus-entzunezko Komunikazioko Grado Bukararako lanak eta Kimu Berri Sariak

Ekainak 8
Ikus-entzunezko Komunikazioko Grado Bukararako Lanen aurkezpenak. Aretxabaleta. 09:15.

Kooperatibagintza topaketa

Ekainak 15
Kooperatibagintza topaketa 6. edizioa.
Gaia: Kooperatiba eta gizarte eraldaketa. Eskoriatza. 09:00.

Unibertsitate masterren informazio saioak:

Ekainak 14
INGENIARITZAK
Orona Ideo eta Arrasaten 17:30etan

ENPRESA KUDEAKETA
Oñati, Bilbo eta Bidasoan 18:00etan

HEZKUNTZA
Eskoriatza 18:00etan

GASTRONOMIA
Donostia 18:00etan

Izen-ematea:
GRADUAK:
Ohiko epea: 2010/06/01erarte
Ezohiko epea: 2018/06/04tik

UNIBERTSITATE MASTERRAK:
Ohiko epea: 2018/06/22rarte
Ezohiko epea: 2018/07/02tik
2018/09/05erarte

CLINICA BAVIERA

CIRUGÍA REFRACTIVA LÁSER

Di adiós
a tus gafas
y lentillas

DESCUENTO
120€
+ 1ª Consulta GRATIS

PROMOCIÓN VÁLIDA PARA UNIVERSIDAD DE MONDRAGÓN

RESERVA YA TU PRIMERA CONSULTA

Bilbao · Avd. Lehendakari Leizaola, 5 / Vitoria-Gasteiz · Manuel Iradier, 33
San Sebastián-Donostia · Easo, 83

TELÉFONO GRATUITO
900 180 100

clinicabaviera.com

No acumulable a otras ofertas. Promoción válida hasta el 30/06/18 para consultas preoperatorias de cirugía refractiva. Precio cirugía refractiva láser: 790€/ojo – Todas las revisiones hasta el alta médica incluidas. Dto. de 60€/ojo. RPS09/16.

LK PAY

"ORDAINDUKO DIZUT" ESATETIK

"ORAINTE BERTAN ORDAINDUKO DIZUT" ESATERA

go!
HORIXE DA JARRERA



Consíguelo en el
App Store

DISPONIBLE EN:
Google play

Orain, **dirua doan bidali eta jaso dezakezu** mugikorretik mugikorrera, **LK Payrekin**. Nahiz eta zure banku berekoa ez izan eta ez jakin haren kontu-zenbakia. Nahikoa da aplikazioa deskargatuta izatea eta haren telefono-zenbakia zure kontaktuen artean izatea.

- Deskargatu **LABORALKutxa Pay** App-a
- Eta lotu zure mugikorraren zenbakia zure kontuarekin

